


NATURA EDO IZADIA



- 1 Udaberriz goizean goiz, abiatuz mendira.
Jarri zaite eguzkian, irterari begira.
Ametsarik gozoneak, hor gauzatuko dira.
Izadia egun berri bat margotzen ari da.
- 2 Kuku eta txorrotxioz, horra natura leher,
Zuhaitz eta loratxoak, bai dauzkagula eder.
Goiz ihintzaren dizdiz freskoz, belardiak halaber.
Izadiak edertasun, gehiago nola ager.
- 3 Gaztain, intxaur, haritz, arte, urritza eta pago.
Hainbat zuhaitz eder bikain, mendietan badago.
Ama lurra emankor da, fruitua du oparo.
Mendez mende, urtez urte, berrituaz lau aro.
- 4 Abereen mundu horrek, ere non dauka muga.
Zenbat mota ote dagon, nork ziurtatu duda.
Naturak du basatien, elikapen ardura.
Etxekoiak gizakien, esku ahal dun modura.
- 5 Nola ahaztu iturri ta, errekatxo gardenak.
Izadian parte dira, bazterretan daudenak.
Horko urak irentsiko, ditu itsaz barrenak.
Euri txingor edo elur, bihurtuko direnak.
- 6 Itsasoa ere hor da, naturaren fabrika.
Arrain denen sehaska ta, giza hobi aldika.
Hilargia ta izarrak, hartzen ditu dizdizka.
Bere perlen amodioz, goxatuaz ixilka.
- 7 Udaberri uda eta, udazkena ondoren.
Negu beltza helduko da, inork uste baino lehen.
Urte aro bakoitzak du eginkizuna hemen.
Baina nork ta nola juzga, zein ote den ederren...
- 8 Natura gauz polit eta, ederra da guztiz bai.
Baina amets egin dudan, dudan jarria naiz ai!!!
Izadiak izan ere baditu, hainbat etsai.
Ondorioz ez da oso, errez egoten lasai.
- 9 Hasieran eder zela, orain ez nago zihur.
Gizakien hatzamarrak, kako bai dira bihur.
Naturaren egilea, baninz nintzake bildur.
Kutsaduran eraginez, egin diogun agur.
- 10 Zein artistak burutu du, modu hortako obra.
Ezingo dut nik argitu, hitzak bai daude sobra.
Nirekiko Norbait haundi, atzean dago horra!!!
Heriotza ez ote da, ordain gai dugun zorra.

— XANTI ZABALA — «Lexo»